

PRENTSA OHARRA: 2020.02.19

Etxepare Euskal Institutuak, Euskadiko Filmategiak eta Instituto Cervantesek hitzarmena sinatu dute euskal zinea zabaltzeko

Instituto Cervantes, Etxepare Euskal Institutuak eta Euskadiko Filmategiak lankidetzan hitzarmena sinatu dute gaur. Euskara eta euskal kultura, eta bereziki euskal zinema, atzerrian dauden Cervantes zentroyen bidez zabaltzeko helburua du akordioak.

Hitzarmena Instituto Cervanteseko zuzendari **Luis Garcia Monterok**, Etxepare Euskal Institutuko zuzendari **Irene Larrazak**, eta Euskadiko Filmategiko (Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea zaintzeko eta zabaltzeko ardura duen erakundea) zuzendari **Jose Antonio Fernandezek** sinatu dute. Jarduteko Protokolo Orokorrak hiru aldean arteko lankidetzarako oinarriak ezartzen ditu, ekimen posibleak elkarrekin garatzeko, "bereziki hizkuntza eta kultura ezagutzea, sustatzea eta zabaltzea helburu dutenak, bai euskaraz bai gaztelaniaz".

Etxepare Euskal Institutuaren egoitzan egindako sinadura-ekitaldian, erakunde honetako zuzendariak esan du Instituto Cervantesekin partekatutako proiektu honetan ilusioz sartzen direla, "80 hiritan baino gehiagotan dauden zentroyen sarea, zalantzarik gabe, euskal zinemarentzat plataforma aparta baita", eta horrekin "nazioarteko audientzia berriak" lortu ahal izango baititu.

"Artxibo filmiko gisa egiten dugun lana iragana eta etorkizuna da, oroimena eta artea, baina transmisio plataformak ere behar ditu, gaur aurkeztu duguna bezalakoak", adierazi du halaber Euskadiko Filmategiko arduradunak.

Instituto Cervantes eta Etxepare Institutua lehenagotik elkarlanean ari ziren euskal zinema eta kultura zabaltzeko, 2011n sinatutako lankidetzaz hitzarmen bati esker. Hemendik aurrera, Filmategia ere batzen da, partaide bat gehiago. “Nire prestakuntzan bidelagun izan ditudan Gabriel Aresti edo Blas de Otero bezalako poeta handiek lotzen naute euskal kulturarekin. Hizkuntza eta kultura honen aberastasuna guztion ondare demokratikoaren indargune bat gehiago izango da”, esan du García Monterok.

Leiho bat euskal zinemarentzat

Sinatutako hitzarmenak lau urtean jarraian lau zinema ziklo egiteko proiektua jasotzen du, eta horietako filmak eta zuzendariak kanpoko hiru komisariok aukeratuko dituzte, Jose Antonio Fernandez Euskadiko Filmategiko zuzendariak eta Jose Luis Rebordinos Donostiako Zinemaldiko zuzendariak koordinatuta.

Aukeratutako lanak, gaztelaniaz zein euskaraz, XXI. mendeko euskal zinemaren adibide izango dira, eta proiektatzen diren herrialdeetako hizkuntzetan azpigitulatu dituzte. Lehenbizikoak Alemania, Hungaria, Maroko eta Errusia izango dira.

Euskal zinema oso aberatsa da, eta ibilbide luzea du nazioartean, ekoizpen eta kontserbazio aldetik oso zaindua izateaz gain. Hitzarmenak film laburrak eta dokumentalak zabaltzea jasotzen du, eta horiei film luzeak gehituko zaizkie aurrerago.

Akordioa Tabakalera sinatu da, Euskadiko kultur eta erakusketa gunerik bisitatuenetako batean – Etxepare Euskal Institutuaz gain, Euskadiko Filmategiaren eta Elias Querejeta Zinema Eskolaren egoitza –. Ondoren, sinatzaile guztiek Eduardo Chillida eskultore ospetsuari eskainitako Chillida Leku museoa bisitatu dute.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus